



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

### **OZ-3. ALDAMIOAK, KARGA-JASOGAILUAK, EDUKIONTZIAK ETA OBRARAKO BESTE ELEMENTU LAGUNGARRI BATZUK JARTZEKO LIZENTZIA**

#### **Zer da / Zertarako da**

Lizentzia hau obra-lizentziatik aparte ematen da, eraikuntzako aldamiok, karga-jasogailuak eta bestelako obra-elementu lagungarriak jarriz jabari publikoaren aprobetxamendu berezia egiteko.

Aldamio eta soken bidezko lanak, Langileek lan-ekipoak erabiltzeko zaindu beharreko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretua aldatzen duen azaroaren 12ko 2177/2004 Errege Dekretuari jarraiki egingo dira.

#### **Nork eska dezake**

Edozein pertsonak edo haren legezko ordezkariak.

#### **Aurkeztu beharreko agiriak**

1. Eskaera-idazkia, ondoko alderdi hauek zehaztuta:

1. Jabari publikoaren zein zati edo gunee erabili nahi den zehazki.
2. Zein eratako instalazioak ipini nahi diren, zein ezaugarri eta materialetakoak diren eta zenbat unitate ipini nahi diren.
3. Aprobetxamendua zenbat denboran eta zer ordutan egingo den.

2. Eskatzailearen NANA.

4. Aldamioen kasuan:

#### **1. TALDEA.- TUTU MODUKO ALDAMIO EDO DORRE MUGIKORRAK (7 metroko edo gutxiagoko garaierakoak).**

- Aldamioaren instalatzaileak egindako krokisa (margolariak, igeltseroak eta abar), fabrikatzailearen jarraibideen arabera egina.
- Erantzunkizun zibileko aseguruaren kopia



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2. TALDEA.- TUTU MODUKO ALDAMIOAK ETA DORRE MUGIKORRAK (7-30 metrokoak)**

- Muntatzeko, erabiltzeko eta desmuntatzeko Plana, teknikari gaitu batek sinatua eta dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia.

**OHARRA:** Aldamio sistema fabrikatzailearekin zerikusirik ez duen organismo batek ziurtatua badago (adibidez AENOR), eta gainera muntaia fabrikatzailearen jarraibideei jarraiki egiten bada, Muntatzeko, erabiltzeko eta desmuntatzeko Planaren ordeztu, fabrikatzailearen "Produktuaren Eskuliburua" nahiko izango litzateke eta kasu honetan krokis bat aurkeztu beharko litzateke.

- Erantzunkizun zibileko asegureraren kopia

## **3.- TALDEA.- TUTU MODUKO ALDAMIOAK (31 metrotik gorakoak)**

- Muntatzeko, erabiltzeko eta desmuntatzeko Plana, teknikari gaitu batek sinatua eta dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia.

- Erantzunkizun zibileko asegureraren kopia

## **4.- TALDEA.- ALDAMIO ESKEGIAK**

- Muntatzeko, erabiltzeko eta desmuntatzeko Plana, teknikari gaitu batek sinatua eta dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia.

**OHARRA:** Aldamio sistema fabrikatzailearekin zerikusirik ez duen organismo batek ziurtatua badago (adibidez AENOR), eta gainera muntaia fabrikatzailearen jarraibideei jarraiki egiten bada, Muntatzeko, erabiltzeko eta desmuntatzeko Planaren ordeztu, fabrikatzailearen "Produktuaren Eskuliburua" nahiko izango litzateke.

- Erantzunkizun zibileko asegureraren kopia

**ALDAMIOAK** soilik ahal dira muntatu, desmuntatu, aldatu eta ikuskatu, lanak, horretarako eskumena ematen dion formazio unibertsitario edo profesionala duen persona baten zuzendaritzapean egiten badira.

### **Non aurkeztu behar da**

**Udaletxeko sarrera erregistro orokorrean** (San Bartolome 2, 20400 Ibarra), astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara.

**OHARRA:** Aurrez aurre teknikariarekin bildu nahi izanez gero, ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara. Hitz ordua ordutegi zabalagoan emateko aukera ematen da. Hitz ordua duen herritarrari emango zaio lehentasuna.

Hitz ordua eskatzeko: 943697321 edo [ibasabe@ibarra.eus](mailto:ibasabe@ibarra.eus)



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**Zenbat kostatzen da**

- Eguneko edo egun-zatiko ..... 0,43 €/m<sup>2</sup>
- Gutxieneko tasa 10,50 € izango da.
- Obra-hondakinak edo materialak uzteko edukiontzia: Unitateko eta eguneko edo egun-zatiko 3,55€